

zuen Loliak bere lehendabiziko zioten izena»

Xabierrek etxera lehendabiziko txapela ekarri zuenean «izugarrizko ilusioa» egin ziola aitortu du. «Ikusi orduko besarkada bat eman nion. Ongi oroitzen naiz». Irratiz aditu zuen txapelketa hura. Bere semea txapeldun zela jakin orduko, familia guztia deitu zion telefonoz berria emateko asmoz. Bakarrik zegoen etxean une hartan, eta bere anaietako bat Xabierrekin zegoen, finala zuzenean jarraitzen.

Xabierren bertsolaririk kuttunenetako bat Txirrita dela jakinarazi digu. Berak, hala ere, gaztetan gehiagotan aditu izan zuen Basarriren berririk. «Hemen ezagunagoa zen. Nik ez nuen Txirrita hainbertze aditu». Gaur egungo bertsolarietatik, Lizaso du gustukoen Loliak. «Egafia ere gustatzen zait, baina Lizaso nahiago dut».

Hala ere, Xabier bertsolari polemikoa izan da. Ama batentzat, seguruenera, zama handia izanen da hori. Loliak, hala ere, Xabierren esku utzi izan du guztia. «Errespetatu egin izan diot. Niri gehiago edo gutiago gustatu, berak egiten zuena onartzen nuen». Karrikan horregatik aipamenak egin izan dizkiote behin baino gehiagotan. «Niri ez zitzaidala inporta erran izan diet, bere ardura dela, ez nirea».

Estilo propioa landu izan du, estetikoki zein bertsolari moduan. Loliak hori aitortu du. Jokaera horretatik gehien harritu duena, ezbairik gabe jantziarena izan da. «Ongi eza gutzen dut, eta bat-batean nola jokatzan duen dakidan arren, jantziak harritu nau gehien». Xabier isila dela aitortu du Loliak, «hala ere, taula gainean bertze itxura bat ematen du». Aldaketa hori nondik nora gerta daitekeen ez daki ongi Loliak. «Anitzetan paratu izan naiz pentsatzera nolatan gertatzen den aldaketa hori, nahiko isila delako gaur egun ere. Ez diot arrazoirik bilatu, baina egia da taula gainean aldatu egiten dela».


Bertsolaritzak Xabierrengan izan duen eragina neurtzea zaila da. Hain gazterik bertotan hasi izanak, txapela lortu izanak norainoko eragina izan duen bere bizimodua zehazterakoan neurtzea ez da aise erraten ahal. Bere amaren aburuz, hala ere, «horrek ez dio bizimodua anitzik aldarazi, lehenagoko Xabier iruditzen zait niri».

Xabierren ospeak amarengan eraginik ba al duen galdegin diogu. «Hasieran jendeak zerbait erraten zizun. Nik hala ere, ez diot jendeari kasu handirik egiten, eta ez nion garrantzi handirik ematen».

Bi anaia gazteago ditu Xabierrek: Jon eta Gaizka. Horiek ere harremanik izan dute bertsolaritzarekin, bertso eskolan aritutakoak baitira. Xabierrek, hala ere, bertzelako bidea jorratu du –Gaizka oraindik hagitz gaztea da. Xabierrek, Gaizkak eta Jonek baino bide nabarmenagoa egiteko arrazoia argi du Loliak: «Xabierrri anitzez ere gehiago gustatu izan zaizkio bertsoak betidanik bere bi anaiei baino. Bertze bientzat denbora-pasa gisa izan dira bertsoak, ongi pasatzeko, zaletasunagatik. Xabierrentzat, aldiz, zerbait gehiago izan dira bertsoak, denborapasa baino gehiago».

Etorkizunean Xabierrek zein bide urratuko duen ez daki amak. «Egin behar zuena egina duela uste dut, gehiago ez duela eginen, alegia. Gustatuko litzaidake gehiago egitea, eta hala nahi nuke. Hala ere, kontent nago egin duenarekin, hagitz kontent».

Lolia ez da zain egonen Xabierrek berari bertsoa noiz eskainiko dion taula gainetik, edota txapela. Ilusio handia egingo liokeela, hala ere, aitortu du. «Noizean behin, idazterakoan, aipatu izan dit, eta ilusioa egiten du, bai». Nafarroako txapelketan semearen entzule fidela izanen da, aurtan ere, baina semearenak eta bere nerbioak babesteagatik irratiz adituko ditu. Amak ez baitu inoiz semea sofritzen ikusi nahi. z



NIEVES
ARANOA

JOSEFINA
ZUGAZARTZA

Uhai Iturrigaren

testua: Izaskun Ellakuriaga | argazkiak: Conny Beyreuther

Nieves Aranoa eta Josefina Zugazartaza; Igor Elortzaren ama bata, Unai Iturriagarena bestea. Semeak koadrila berekoak badira, gurasoak ere koadrila batekoak egin dira etxeko gazteenei eskerrak. Durangoko bi gazte hauen curriculumean datu asko izan ditzake edozein bertsozalek. Zenbat urte dituzten, bertsoetan noiz hasi ziren, zeintzuk ikasketa egin dituzten, zenbat txapelketa irabazi duten... Eta bertsolari moduan ez ezik, Zazpi Eskale taldeko kide moduan, edota idazle lez ere zer egiteko gai diren jakiteko modurik izan dugu. Curriculum betea izan dezakegu, beraz. Ez baitira geldi egotekoak bi durangarrak. Baina seme-alabak amek baino hobeto inork ez ei ditu ezagutzen.



Semeei esker lagunak

IEKIN izandako barriketaldiaren hasiera-
hasieratik igartzen zitzaien semeak ondo
ezagutzen dituztela. Igor eta Unai izan zi-
ren gure solasaldirako gai nagusi. Baina
Nievesek eta Josefinak badakaita zer, ze-
lan eta noraino kontatu behar duten. Ondo
dakite semeen sekretutxoak gordetzen.
Dena dela, bien curriculumean datu gehia-
go prozesatzeko aukera izango duzu arti-
kulu honen amaieran.

Bertsotan batera hasi ziren Igor eta
Unai. Kurutziaga Ikastolara joaten zen Jon
Lopategi eskolaz kanpoko orduetan nahi
zuten gaztetxoek bertsotan irakastera. Igo-
rren kasuan Nievesek uste du bere arreba
Olatz izan zela bertsotan hasiera bultzatu
zuen. «Olatz bera joaten zen eta oso ondo
pasatzen zutela ikusiko zuen eta bera ere
horrela hasi zen». Josefinak gogoratzen
duenez, berriz, «gurean Unai Esturoren
bitartez hasi zela esaten du». Sekula ez zu-
tenpentsatu bertsotan gaur arte egindako
guztia egingo zutenik.

Etxeko «txikiak» dira Igor eta Unai.
Igorrek arreba bakarra du, Olatz, bera bai-
no hiru urte zaharragoa. Unai, berriz, lau
anaietan gazteena da. Ama guztien antze-
ra, ondo gogoratzen dituzte haurdunaldiko
gorabeherak, non eta noiz jaio ziren, eta
jaiotakoan zenbat kilo izan zuten: Igorrek
3.200 eta Unai 3.800. Bestelakoan, haur-
dunaldian ostiko gutxi jo zuten biek. Txi-
kitan ere mutil formalak izan dira, gero
«trabestu» direla dio Josefinak: «etxeko
beste hiruren artean formalena Unai zen.
Dena dela, anai arteko burrukak egunero-
ko kontua ziren gure etxean eta gero ama-
diarraka amaitzen zituzten».



Txikitan oinez eta berba egiten haste-
ko ere, Igorrek ez zuen aparteko arazorik
izan. «Etxean arazorik gutxien berak ekarri
du» dio Nievesek, «oso amazuloa» izan
dela ere aitortu digu. Ez da Unairen kasua
izan. Unai oinez birritan ikasi behar izan
zuen. Lau urterekin «hanka planoak zitue-
lakoan medikuarengana eroan» eta Perte-
sis gaitza diagnostikatu zioten. Pernilaren
hezur borobilaren desgasteari deitzen zaio
Pertesis. «Geldi egonda probatu behar zela
esan zigun medikuak» Ez zen trantze erra-
za izan gurasoentzat. «Unai lau urte zi-
tuen. Eskolan hasi berria. Urtebete geld-
i egon behar izan zuen. Eta bigarrenean
Ikastolara joaten hasi zen. Sei urterekinbe-
rriro oinez ikasi egin behar izan zuen».



«Kepa Intxaus
zuen bertsoa a
zen moduan,



atik zenbat denbora behar izan
amaitzeko. Geure semea izango
guk txarto pasatzen genuen»



«Igorrek lehenengoz Arriag
Amerikatik ekartzen diren artii
izan zuen»

Gaixotasunari aurre egin beharrak edozein arazori adarretatik ebatzeko gaitasunean lagundu ziola uste du Josefinak. «Gogoratzen naiz, berak bakarrik egin gura izaten zuen. Zutunik ipini behar izaten zenean, haserretu egiten zen laguntzera hurreratuz gero. Berak bakarrik egin behar zuen, beharbada beste anaiei aurrean zer edo zer demostratu guran edo». Gorpil-aulkian egon beharra ez zuen gustuko amaren ustez. Batez ere jolastordua heltzen zenean. Eskolako lagunek are artean olgetan ibiltzen ziren bitartean, Unai begira egoten omen zen eta etxera triste samar heltzen zen. «Mimo batzuk eman eta konpontzen zen. Eta noizean behin eguerdi ostetan Mari Cruz Sorianori kartaren bat edo beste idazten genion. Telebistan programa bat zuen eta bakoitzak zuen arazoa kontatzen zuen. Baina ez dut uste eta gainera Unai ez du sekula esan sasoi haretan txarto pasatu zuenik». Nievesek Igor Elortzaren amak ere gogoratzen du Unai gorpil-aulkian: «Lagunek ondo pasatzen zuten Unai gorpil-aulkian hartu eta aldapan behera bota gero eurek atzetik arinetan egiteko. Gogoan ditut Ikastolarako aldatsean egiten zituzten arinetaldia».

Urtebeteko diferentzia dute Igorrek eta Unaiak. Eta bertsotan hasi arte eskolako ezagunak baino ez ziren. Apurka-apurka bertsotan gero eta denbora gehiago egiten zuten eta koadrila bereko kide egin ziren. Gurasoak ere beste horrenbeste. «Gu aspaldiko ezagunak ginen» ñ Nieves hasi da kontakizunarekin- «Kaletik, Ikastolatik eta inguru berean ibiltzen ginelako ezagunak». Txanda hartu dio Josefinak: «bertsotan hasi zirenean, batean honako txapelketara, bestean halako saiora, egun osoko ibilaldia egiten genituen eta azkenean lagun moduan amaitu dugu semeek eskerrak».

Bertsotan 12 urte inguru zituztela hasi ziren. Ikasketetan eraginik izan duten galdetzean ama biek semeak «oso ikasle onak» izan direla aitortu dute. Josefinak gaur egun ditu zalantzak Unai oraindik Arte Ederretako karrera amaitu barik due-lako. Baina saltsa askotako perrexila denez normaltzat ere jotzen du neurri handi batean, «gauza guztiak ondo atenditzea ez da eta erraza». Baina ikasketetan baino gehiago «mutiko izatean» bertsok eragin handiagoa izan duela uste dute. Askoren antzera gatzetxotan hasi ziren biak bertsotan. Baina nabarmentzen hasi zirenean, jende nagusiarekin saio asko egiten hasi ziren. «Nik eduki dot pena. Mutiko izate hori arintxo pasatu ete duen Igorrek. Gurea 15-16 urterako nagusia zen». Josefina ere Nievesen iritzi berekoa da. Unai bere adineko beste batzuk baino arinago heldu zela uste du. Dena dela, arrazonamenduetan eta norberarena defendatzeko orduan etxekoan artean eskola ona izan du Iturriagak. «Etxean denak izan dira gogorak eta euren ideiak defendatzekoak».

«Konturatu barik» semeak astean behin eskolaz kanpo bertsok botatzen baino zer edo zer gehiagotan hasi ziren. Santi Belar buru zutela Durangoko bertso eskolan hasi ziren, inguruko jaietan lehenengo bertsok botatzen zituzten eta eskolarteko txapelketetan ere parte hartzen hasi ziren. «Beste batzuek futboleak egiten duten legez, Igorrek eta Unai bertsotan egiten zuten. Ez genion aparteko garrantzirik ematen», kontatzen du Nievesek. Baina domeka goiz batean etxetik irten eta txapel eta guzti bueltatu zenean, «zer edo zer bada ba» pentsatu zuten etxean. «Iñaki, Josefinaren gizona, Unairen aita, joaten zen gazteei laguntzera, hara eta hona. Eta behin, San Markos jai batzuetan, Igorrek

an kantatu zuenean Hego
lezkoko jertse bat en kapritxoa

txapela irabazi zuela eta berak eman zidan notizia. Hortik aurrera hasi ziren gure joan-etorri guztiak».

Biak, Nieves eta Josefina, bertsozaleak dira. Bertsozaleak ziren semeak bertsotan hasi aurretik, baina semeek hara eta hona jarraituta, zaletasuna handitu egin zaie. Bizkaiko, Nafarroako zein Gipuzkoako txapelketako saioak nekez galduko dituzte. Durangalde inguruan saiorik egiten bada, Nieves eta Josefina entzuleen artean ikusiko ditugu. Eta sarritan, semeen saioak Euskal Herria ezagutzeko aprobetxatzen dituzte. «Hori bai ipini zeinke, gure semeen kontura oso ondo pasatu dugu. Ez daukagu damutzeko ezer. Sarritan txofer joan behar izaten genuen, baina oso pozik. Euskal Herria ezagutzeko beste modu bat izan da guretzat».

Euskal Herria ez ezik, bertsolariak ere gehienak ezagutzen dituzte. Unai eta Igorren sasoian Bizkaiko bertsolari gazteen taldea osatzen zutenak, batez ere. Anekdotak ere bata bestearen atzetik kontatzeko lain gogoratzen dituzte. Donostiara joan ginen behin, eskolarteko txapelketara. Pankarta eta guzti animatzera Josefina hasi da lehenengo- eta amaaaa! guk pasatu genuen txarto guk! Kepa Intxaustik zenbat denbora behar izan zuen bertsoa amaitzeko. Geure semea izango zen moduan, guk txarto pasatzen genuen. Batak zein besteak irabazi, gu poztu egiten ginen eta, denak ziren koadrila bateko eta, zelan ez ginen ba poztuko? Eta hurrengo Nieves egun bereko beste pasarte bat kontatzen hasten da: Nik akorduan daukat Arratiako Olabarri eta Meñika, ezpatadantzari jantzita joan zirela eta gero Lasarteko Hipodromora bazkaltzera joan ginen koadrila guztia.

Unai eta Igor Bizkaiko bertsolari gazteen belaunaldiko lehenengoetakoak dira. Kanpantxuko barnetegiko ikasle aurreratuak. Kanpantxu berba aipatu orduko «hori itzela zen» bota du Josefinak. Desiatzen egoten ziren, Lopategik noiz deitu eta



«Etxeko txiki
arrebak bakarrik

bertsotan Kanpantxura joateko. Ez zen bertsotan egitea bakarrik. Etxetik kanpora egun batzuk pasatzen zituzten. Euren adineko jendearekin bertsotan bakarrik ez, besterik ere egingo zuten... Kanpantxun beste ondo ez dut uste pasatu dutenik. Hango akordu ona dute ez bakarrik gure semeek, hara joaten ziren gainerako guztiek ere bai.

Semeen artean txapelketetan izaten den lehia berdina amen artean existitzen



ak dira Igor eta Unai. Igorrek
ra du, Olatz, bera baino hiru
urte zaharragoa»

den ere jakin guran zirikatu ditugu pixka bat. Baina eurek baino garrantzi gehiago kanpoko jendeak ematen diola uste dute. Azken txapelketan Igorrek irabazi zuela eta, jende asko hurreratu zen niregana ze pena, eh?, esanez. Baina nik ez nuen penarik hartu. Burutik pasatu ere ez. Azken baten, txapelketa da, baina jolas bat ere bai. Bakoitzean batek irabaztea da politena, horrela bertsolari on asko dagoela erakusten zaio jendeari. Josefinak txapelketak la-

sai pasatzen ditu. Nievesek guztiz kontra. Batez ere nerbioso dagoela igartzen dionean: «burua gora, sorbaldak gora, keinuka hasten denen igarri egiten diot txarto dabilena. Gurago dut ikusi ere ez egitea. Bertso saioak disfrutatzeko dira eta txapelketetan ez dut disfrutatzen, ezta eurek ere». Igorrek txapelketa sasoian oso txarto pasatzen ei du amaren esanetan. Askotan sukarrekin izaten da saioen bezperan.

Eta superstiziosoak diren galde egin



diegunean, maniatxoren bat edo beste ihes egin die amei. Igorrek lehenengoz Arriagan kantatu zuenean Hego Amerikatik ekartzen diren artilezko jertse baten kapritxoa izan zuen. Nievesek Bilboko AEKn lan egiten zuen orduan eta mota horretako jertseak saltzen zituzten denda batetik hiru eraman zituen etxera Igorrek probatzeko. Denak handi zakuen antzera zituen. Berriro dendara joan eta neurrikoa aurkitzeko direnak eta ez direnak egin behar izan ei zituen dendariak. Arropa kontuan Unai beti berezi samarra izan dela us-te dau Josefinak eta jaunartzeko jantziekin semearekin izandako ika-mika gogora ekarri du: «alkandora horia gura zuen berak eta nik urdina. Beste hiru semeak ematen zitzaienarekin konformatzen ziren, baina Unai ez, berak berea. Eta gero beltzez janzten hasi zen. Eta harrezkero ez du nahi besterik. Pentsatu ere ez. Zuk erregalatu egiozu beltza ez den zer edo zer, eta ez du gura».

Baina bertsotan bakarrik ez, abeslari

moduan eta idazle moduan ere saiatsu dira durangar biak. Gaztetxotan, bertsotan ez ezik, musikan ere saiatsu ziren biak. Kontserbatorioan solfeoa lehenengo eta gero Igor pianoarekin eta Unai biolinarekin saiatsu ziren, baina ez zuten aurrera egin. «Igorrek ikusi ere ez zuen egin gura pianoa. Oso ondo jotzen ei zuen, baina ez zuen piano konturik entzun gura. Eta inoiz el-karrizketaren batean pianoa jotzen zuela esan du, eta zelan diren gauzak, lehen ezer ez». Unai bi urtez aritu zen Durangoko kontserbatorioan biolina ikasten. Oraindik ere kamaran ditu bi biolinak.

Ez dira, dena dela, pianoa eta biolina jo dituzten musika-tresna bakarrak. Sasoi batean, koadrilako beste lagunekin batera rock talde bat martxan ipintzen ere saiatsu ziren. Nievesek eta Josefinak ez dute taldearen izena gogoratzen, baina semeak gitarra handi batzuekin ibiltzen zirela akorduan dute. Entsaioak Beñat Gaztelurrutia- ren etxean egiten zituzten, arrautza kaxe- kin hormak bete eta gero. Eta kontzertu-